



Heziketa digitala LHn eta DBHn

2020-2021
ikasturtea

macsonrisas
Wema Corp. SLU

macsonrisas-i buruz	3
Ikasturte honetan egindako prestakuntzak	4
Ateratako ondorioak	5
LHn ateratako ondorioak	5
DBHn ateratako ondorioak	9
Gomendioak	13
LHko familientzako gomendioak	13
LHko ikastetxeentzako gomendioak	13
DBHko familientzako gomendioak	14
DBHko ikastetxeentzako gomendioak	14
Eskertza	15

macsonrisas-i buruz

macsonrisas Wema Corp-en heziketa digitaleko saila da. Une honetan, hezkuntzako hiru profesionalak, gizarte-langile batek eta bi irakaslek, osatzen dute. Ilusio handiarekin sortzen dituzte eta ematen dituzte prestakuntzak.

Gure helburu nagusiak teknologiaren erabilera kontzientea eta segurua sustatzea eta adingabeen babesa mundu digitalean sustatzea da. Egunero adintxikokoek mundu digitalean dituzten esperientzia eta arriskuak ikusten ditugu, bai eta mundu digitalaren erabilera desegokiak dituen ondorioak ere.

Ikastetxeetan ikasleei, familiei eta irakasleei prestaketak ematen dizkiegu, hiru ikuspegietatik adintxikokoek heziketa irizpide berberak izan ditzaten eta hobeto barneratu ditzaten.

Gainera, hezkuntza digitalarekin lotutako hitzaldiak eta prestakuntzak ematen ditugu udaletxeetan, elkarteetan eta enpresetan: zibersegurtasuna, sare sozialen eta online jokoan erabilera kontzientea, indarkeria digitala, sare sozialetan eta online jokoetan dauden arriskuak eta prebentzioa... jorratzen ditugu.

Arabian, Vital Fundazioarekin lankidetzan aritzen gara "Har ezazu kontrola" proiektuan eta horri esker ikastetxe guztiek prestakuntzak doan izateko aukera dute. Proiektuaren barruan Justizia Sailarekin elkarlanean aritzen gara, sare sozialekin erlazionatuak dauden delituak egin dituzten eta bitartekaritza prozesuan dauden adingabeei prestakuntza emanez.

Gaur egun, lankidetzan aritzeko erakunde, fundazio edo enpresak bilatzen ari gara, gure heziketa digitalaren inguruko proiektua beste probintzia batzuetan eskala handian ezartzeko, Arabian egiten dugun bezela, ikastetxeek doan parte hartu ahal izan dezaten eta, horrela, ahalik eta ikastetxe gehienetara iristeko aukera izateko.

Ikasturte honetan egindako prestakuntzak

78 ikastetxetara joan gara, eta guztira 740 saio egin ditugu lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleekin. Irakasleekin 39 prestaketa eta familiekin 102 prestaketa egin ditugu Euskadin, Nafarroan eta Zaragozan.

Kultur etxe, liburutegi, gazteleku eta enpresetara ere joan gara hitzaldiak eta prestakuntzak ematera.


2020-2021 kurtsoan

740 saio ikasleekin

102 saio familiekin

39 saio irakasleekin

www.macsonrisas.es



● LH

● DBH

● Batxilerra

Ateratako ondorioak

LHn ateratako ondorioak

Ikasturte honetan, itxialdiaren ondoren, lehen hezkuntzan smartphone, sare sozial eta online jokoan erabilera asko handitu dela ikusi dugu. Lehen hezkuntzako 4. mailako ikasleek sare sozialen eta online jokoan egiten duten erabilera, pandemiaren aurretik lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek egiten zuten erabileraren parekoa da. Erabileraren adinaren beherakada hori ez da soilik konfinamenduaren ondorioa. Izan ere, aurreko ikasturtean antzeko zerbait nabaritu genuen 2018-2019 ikasturtearekin alderatuta, baina konfinamenduak eragin handia izan du.

"Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek sare sozialen eta online jokoan egiten duten erabilera, pandemiaren aurretik lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek egiten zutenaren parekoa da"

Ikastetxe gehienetan, LHko 5. eta 6. mailetan haurrek TikTok erabiltzea ohikoa da, eta ikastetxe askotan, jada LHko 4. mailan TikTok erabiltzea ere bai. LHko 3. mailan ez ditugu momentuz prestaketak ematen, beraz ez dakigu haur horiek TikTok erabiltzen duten ala ez. Gehienek WhatsApp erabiltzen dute, euren telefonoetan edo familienean, eta gehienek euren adinerako oraindik gomendatuta ez dauden jokoetan ibiltzen dira.

Askok helduagoentzat gomendatutako jolasetan ibiltzen dira, askotan 16 edo 18 urtetik gorakoentzat gomendatutako jolasten. Online joko gehienetan ezezagunekin jolastu dezakegu, eta horrek arazo handiak ekar ditzake: ezezagunen hurbilketa desegokiak, sexu eduki eta jarrera desegokiak ikustea, helduen elkarrizketak entzutea... Gehien erabiltzen diren jokoak Among Us (+10), Fortnite (+12), Brawl Stars (+10) GTA (+18) eta Call Of Duty (+18) dira. GTA eta Call of Duty familekin jolasten duten haurrak ere badaude, gehienetan osabekin.

6. mailan gehienek smartphone propioa dute, eta 5. mailan erdiek gutxi gorabehera. Lehen Hezkuntzako 4. mailan, gutxiago dira smartphone propioa dutenak, hala ere, asko dira.

"Ikastetxe gehienetan ohikoa da haurrak LHko 5. eta 6. mailetan TikTok erabiltzea, eta ikastetxe askotan LHko 4. mailan ere askok erabiltzen dute"

13 urte baino gutxiago izanda smartphoneak edukitzea, TikTok, Youtube eta Instagram bezalako sare sozialak erabiltzea oso arriskutsua izan daiteke haurrentzat:

- **Oraindik ez dute ezezagunen hurbilketa desegokiak eta arrisku desberdinak antzemateko gaitasunik.** Ohikoa da ezezagun helduak beraiekin harremanetan jartzen direla kontatzea, proposamen desegokiak eta galdera pertsonalak egiten dizkietela esatea, informazio pribatua eta argazkiak eskatzen dizkietela adieraztea, kamisetarik gabeko gizon helduek TikTok-en neskekin “Duo” ak egiten dituztela esatea...
- **Oraindik ez dute ikusten eta bizitzen dituzten gauza gehienak ulertzeko gaitasunik.** Bi zentzu dituzten elkarrizketak ez dituzte ulertzen, hizkera bortitza eta desegokia ikusi eta entzuten dute, ondorio okerrak ateratzen dituzte gai askoren inguruan gomendio txarrak eta desinformazioa entzuterakoan...
- Benetan desegokiak diren letrak dituzten abestiekin **dantza sexualizatuak egiten dituzte.** Bideoetan agertzen diren pertsonen **jazkera eta jarrerak erreplikatzeko dituzte,** eta bideoetan agertzen direnak oro har 18 urte baino gehiago dituzte.
- **Oraindik ez dute ikusten dutenarekin kritikoak izateko gaitasunik.** Horrek, bi aldiz pentsatu gabe bideoak eta erronkak errepikatzen eramatean ditu, hau egiteak izan ditzakeen ondorioak edo arriskuak antzemateko gaitasunik ez dutelako.
- Ikusten dutenarekin kritikoak ez direnez, beste erabiltzaile batzuk **sare sozialetan esaten dituzten hainbat gezur sinisten dituzte eta aholku zentzugabeak jarraitzen dituzte.**
- **Beste sare sozial batzuk ezagutzen dituzte TikTok, YouTube edo Instagramen bidez: OnlyFans**eko eduki pornografikoen sortzaile askok doako bideoak dituzte eta sortzaile horien bideoetara iristea oso erraza da, Instagram eta TikTok-en iragartzen dituztelako eta haien profiletan estekak jartzen dituztelako. Youtuben ere, egiten dituzten bideoen deskribapenetan esketak jartzen dituzte. Gainera TikTok, Instagram eta Youtubeko erabiltzaile askok, **Omegle**n eta **Chatroulette**en ezezagunekin izandako elkarrizketak erakusten dituzte.
- **Ezinezkoa da sare sozialen bidez bidaltzen eta jasotzen dutena kontrolatzea,** nahiz eta guraso-kontrolak instalatuta izan. Ohikoa da material pornografikoa eskuratzea. Nahiz eta gehienetan beraiek ez duten bilatzen iristen zaie. Gehienek anekdotiko gisa ikusten dute, eta ez diote arreta handiagorik jartzen baina pornografiarekiko esposizio hain goiztiarrak oso ondorio kaltegarriak izan ditzake.

- WhatsApp eta antzeko mezularitza zerbitzuak modu desegokian eta arduragabean erabiltzeak, Hangouts edo Txat desdeberdinak esaterako, arazo eta eraso digital ugari sortzen ditu ikaskideen artean ia gela guztietan. Safe the Childrenen arabera, 9/10 urterekin hasten den jazarpen digitalaren kasuak asko ugartzen ari da. Oraindik ez daude prest tresna horiek modu zentzudun batean erabiltzeko, ez baitute garatu adinarekin garatzen den gaitasun hori.

Gailu digitalekin hazi direnez, smartphoneak barne, normalizat jotzen dute hauek izatea eta gehiegi erabiltzea. Hainbeste erabiltzen ez dituen "arraroa" dela pentsatzen dute. Horrek, Interneten kontrolik gabeko eta mugarik gabeko sarbide bati gehituta, Interneten dagoen eduki guztia eskura dutela eta pertsona guztiei zuzenduta dagoela pentsarazten die, haien adina edozein dela ere. Dena beraiantzako dela uste dutenez, ez dute ulertzen helduentzako edukirik dagoenik, nahiz eta eduki hori bortitza edo sexuala ez izan.

“Haur gehienek interes handia erakusten dute haien pribatutasunaren inguruan”

Haur gehienek interes handia erakusten dute haien pribatutasunaren inguruan. Beste batzuk jarraitzaile asko izan nahi dituzte sare sozialetan, nahiz eta ez jakin ondo zergatik. Azken hauek gizartearen zati handi batek erakusten duen "ospetsua izateko" espiritu edo behar hori hartu dute heldu horien gabeziak oraindik garatu gabe, hala nola kanpo baliozkotzearen beharra, eta sare sozialekiko mendekotasun handia oraindik garatu gabe.

Gehienek Youtube erabiltzailen dute, baina ikastetxe askotan Youtube Kids erabiltzen duten eta haien gailuetan gurasoen kontrolak instalatuta dituzten haurrak ikustek asko pozten gaitu. Guraso kontrolek haien familiei, haurrek eskura dituzten aplikazioak, sare sozialak eta online jokoak kontrolatzeko, eta erabilera denbora mugatzeko aukera eskeintzen die.

“Benetako kezka antzematen dugu lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako irakasleengan”

Benetako kezka antzematen dugu lehen hezkuntzako eta haur hezkuntzako irakasleengan, haurrek gailu digitalen, sare sozialen eta online jokoen egiten duten kontrolik gabeko erabilerari dagokionez. Nahiz eta normalean izaten duten lan saturazio-maila handia den, eta are gehiago pandemia betean, irakasleek denbora

ateratzen dute online jokoen eta sare sozialen nondik norakoak hurbilagotik ezagutzeko, bai eta haien arriskuak eta prebentzio irizpideak ezagutzeko ere.

Aldiz, familiek oro har ez diote garrantzirik ematen hezkuntza digitalari, eta pantailen gehiegizko erabilera eta kontrol eza ahalbidetzen dute. Prestaketetara hurbiltzen diren familiak kontzientziatuta daude heziketa digitalaren garrantziarekin eta dauden arriskuekin, baina etortzen direnak soilik ikastetxe bakoitzeko familia guztien % 7a dira.

“familiek oro har ez diote garrantzirik ematen heziketa digitalari, eta pantailen gehiegizko erabilera eta kontrol eza ahalbidetzen dute”

DBHn ateratako ondorioak

Lehen hezkuntzan bezala, konfinamenduak eraginda, pantailak gehiegi erabiltzen dira. Egunean batzuetan beste pantailak zenbat denbora erabiltzen duten galdetzen dugunean, nerabe gehienek ez dute inolako erreparorik asteen zehar egunero 4 ordu eta asteburuetan 5 eta 7 ordu bitartean erabiltzen dituztela esateko.

“nerabe gehienek ez dute inolako erreparorik pantailak asteen zehar egunero 4 ordu eta asteburuetan 5 eta 7 ordu bitartean erabiltzen dituztela esateko”

Irakasleak oso kezkatuta daude benetako mendekotasun koadro batzuk hautematen dituztelako, eta ikastetxe askotan mutilen artean pornografiarekiko obsesioak (adikzioa?) ere kezkatzen ditu.

Sare sozialak, WhatsApp batez ere, inkontzienteki eta askotan modu kaotiko batean erabiltzen dituzte. Oso ohikoa da eta oso zabaldua dago WhatsAppen 20 talde baino gehiago dituzten nerabeak aurkitzea (34 talde arte). Instagramen ere talde asko dituzte eta, gehienek, Instagramen hainbat kontu erabiltzen dituzte aldi berean. Taldeak modu oker batean erabiltzeak baliorik gabe uzten ditu eta jazarpen eta distrakzio zentroetan bihurtzen ditu.

Teknologiaren erabileraren inguruko ezjakintasun orokorra antzematen dugu. Nerabeei eta haien familiei nerabeek "asko kontrolatzen" dutela iruditzen zaien arren, errealitatea oso modu oinarrizkoan erabiltzen dutela da eta ez dakite modu sakonago batean erabiltzen. Adibide bat jartzearren, sare sozialak mezuak bidaltzeko eta argitalpenak sortzeko erabiltzen dituzte, baina ez dakite nola babestu behar dituzten, sare sozialek eskaintzen dizkieten aukerak ez dituzte ezagutzen eta ez dakite aukera horiek nola aprobetxatu.

“Teknologiaren erabileraren inguruko ezjakintasun orokorra antzematen dugu”

Nerabeek ez dakite legea interneten ere aplikatzen dela, egunero egiten dituzten ekintza asko delituak direla eta delitu horiek egiteak ondorio legalak dituela. Sare

sozialak oso modu inkontzientean eta kasu askotan modu arriskutsuan erabiltzen dituzte:

“Nerabeek ez dakite legea interneten ere aplikatzen dela, egunero egiten dituzten ekintza asko delituak direla eta delitu horiek egitea ondorio legalak dituela”

- Oso ohikoa da geletako WhatsApp-eko taldeetan adin txikikoen irudiak eta bideoak (biluzik edo sexu-ekintzetan) etengabe jasotzea. Beste pertsona batzuen sexu-irudiak bidaltzea edo sare sozialetan argitaratzea delitua dela azaltzerakoan, nerabeak zuri geratzen dira eta elkarri begiratzen hasten dira. Pornografiaren bidalketa normalizatuta dago.
- Prestaketak bukatzerakoan, nerabe batzuk zuzendaritzara jeisten dira sextorsioaren biktimak direla salatzen.
- Prestaketetan, nerabe askok kontaktzen digute kontu lapurketak, iruzurrak, nortasun ordezkapenak, eraso digitalak, jazarpen digitala, informazio pribatuaren hedapena, baimenik gabe irudien zabalkuntza eta mehatxuak jasan dituztela.

Nerabe askok isilean delitu asko jasaten dituztela iruditzen zaigu.

“Desinformazioa arazo handia da”

Desinformazioa arazo handia da. Nerabe askok ia denbora libre guztia TikTok-en eta Instagram-en ezezagunen aholkuak entzuten ematen dute. Entzuten ari direna gezurra izan daitekeela ez dute pentsatzen, eta ez diote bere buruari galdetzen aholkuak ematen dituen pertsona hori gaituta dagoen edo prestakuntzaren bat duen gai horren inguruan hitz egiteko. Sare sozialetan aurkitutako informazioa ontzat ematen dute, egia den ala ez jakiteko ez dute kontrastatzea planteatzen, eta ez dakite nola egin.

Adibide bat jartzearen, nutrizioaren munduko desinformazioaz eta ProAna (pro anorexia) eta ProMía (pro bulimia) bezalako komunitate arriskutsuen inguruan hitz egin ondoren, prestaketak amaitzean nerabe batzuk hurbiltzen zaizkigu ea pisua galtzeko ezer ez jatea, txarra den galdetzera, horiek baitira jarraitzen dituzten aholkuetako batzuk.

Era berean, sare sozialetan pertsona asko daude aholkuak ematen psikologiari, harreman pertsonalei, bikote-harremanei, sexuari, kirolari, online apustuei, zibersegurtasunari eta beste gaiei buruz. Aholku hauek ematerakoan, batzuk aholkuak osatu gabe uzten dituzte, beste batzuk testuingurutik atera dituzte, batzuk gaizki ulertu eta azaldu dituzte, beste batzuk ez dute inolako oinarririk edo zuzenean informazio faltsua ematen dute. Era berean, irakasleekiko mesfidantza areagotzen ari da, TikTok-en ikusten dituzten bideo askoren ondorioz.

Bulkada kontrol falta gero eta handiagoa sumatzen dugu. Interneten gauza asko unean bertan lor daitezkeenez, bat-batekotasun hori haien beren bizitza digitalaren alderdi guztietara eramaten saiatzen dira, batez ere mezularitza-aplikazioetako elkarrizketetara. Aplikazio hauetan mezuei berehalako erantzunak eskatzen dizkiete, eta pertsona askorengan antsietate handia sortzen da jasotako mezuaren soinua entzuterakoan.

“Komunikazio digitalean jarrera toxikoen gorakada handia antzematen dugu”

Komunikazio digitalean jarrera toxikoen gorakada handia antzematen dugu, hala nola iruzkin toxikoen eta eraso digitalen normalizazioa, kontrol digitala nerabeen arteko bikoteetan eta “ghosting”a.

Bigarren hezkuntzan banaketa argia nabari dugu pribatutasuna asko baloratzen dutenen artean eta sare sozialetan ospea lortzeko edozer gauza egiteko prest daudenen artean. Haien pribatutasuna baloratzen dutenak gehiago direla uste dugu, baina hala ere, ezezagunak sare sozialetan jarraitzaile gisa onartzeko joera oso handia da. Jarraitzaile asko izateak ematen duen estatus-sentsazio faltsuak ezezagunen aurrean arreta jartzea baino garrantzitsuagoa izango balitz bezela jokutzen dute.

Ez dira jabetzen sare sozialetan eta interneten argitaratzen duten guztiak etorkizunean izan dezakeen eraginaz, eta askok inolako filtrorik gabe gauzak partekatzen dituzte. Era berean, mundu digitaleko ospeak bizitza ikusteko moduari, autoestimuari eta identitatea eraikitzeke moduari asko eragiten diola uste dugu. Hori guztia beste pertsona batzuen ikuspegi, begirada eta arauen menpean garatzea bizitza fisikoan baino askoz ere zabalduagoa dago. Nerabe askoren ustez, dena sare sozialetan erakutsi behar da iruzkin positiboen bidez eta, batzuetan, iruzkin negatiboen bidez kanpo-balidazioa lortzeko. Behar horrek, nerabe batzuk jarraitzaile gehiago lortzeko inolako iragazkirik gabe gauzak igotzen hastera eramaten ditu: mota guztietako erronkak, dantza sexualizatuak, txantxa astunak, jarduera arriskutsuak, "nudeak" edo material "erdi erotikoak" (sareek zentsura ez dezaten)... Internetera igotzen dena betirako gera daitekeela eta pertsona askok material hori modu desberdinetan erabili dezaketela ahaztu egiten dute.

Kezkatu egiten gaitu nerabe askok online apustuak egiten dituztela aitortzeak. Berez, online apustuak 18 urtetik gorakoek soilik egin ditzakete, baina ikastetxe askotan maiztasun handiarekin kirol apustuak egiten dituzten nerabeak daude. Apustuak independentzia ekonomikoa lortzeko modu bat direla uste dute, eta uste hori faltsua da. Nerabe batzuk kriptotxanponetan inbertitzen ari dira, inolako finantza-ezagutzarik gabe, gainbegiradarik gabe, eta adinez nagusiak izan gabe; horrek galera aseguruak dakartza. Bai online apustuak eta bai kriptotxanponetan inbertsioak, dirua azkar lor daitekeelaren ideia faltsutik datoz. Idea hori eskrupulurik gabeko YouTuber eta Influencer desberdinek bultzatzen dute, bideo-bistaratze gehiagorekin dirua lortzeko, eta "Inbertitzen ikasteko eta diru asko irabazteko" sortzen dituzten ikastaroetan ikasle gehiago izateko.

Gomendioak

LHko familientzako gomendioak

Lehen hezkuntzako eta haur-hezkuntzako familiek hezkuntza digitalaren oinarritzko irizpideak betetzea gomendatzen dugu:

- **Adinak errespetatzea:** Sare sozialak erabili ahal izateko haien erabilpen baldintzetan ezarritako adinak errespetatzea gomendatzen dugu. Permisiboenek 13 urtetan ezartzen dute gutxieneko adina (TikTok eta Snapchat), Youtubek 14 urtetan ezartzen du adina (14 urtetik beherakoentzat Youtube Kids dago), eta WhatsAppek Europan erabili ahal izateko gutxieneko adina 16 urtetan ezartzen du. Era berean, adingabe batek smartphone bat izateko gomendatzen den adina 13 urtetik gorakoa da, adingabearen heldutasunaren arabera.
- **Erabilera-denbora ezartzea:** Espainiako Pediatria Elkarteak adingabeek 16 urte izan arte egunean gehienez pantailak erabiltzeko denbora (Youtube gehi online jokoak, gehi etxeko lanak egitea hala badagokio, gehi telebista, gehi sare sozialak...) **2 ordukoa izatea** gomendatzen du. Hortik behera.
- Adingabeek gailu digitalekin (ordenagailuak, tabletak, smartphoneak, bideo-kontsolak) zein erabilera mota egingo duten negoziatzea eta kontratu batean islatzea gomendatzen dugu.

Familiaik gurasoen kontroletan oinarritu daitezke gomendio horiek jarraitzeko.

Maiztasu handiarekin online jokoekin eta sare sozialekin lotutako elkarrizketak izatea ere oso egokia da, aurkituko ahal dituzten arriskuak, prebentzio irizpideak eta mundu digitalean behar bezala babesteko moduak ezagutu ditzaten.

LHko ikastetxeentzako gomendioak

Ikastetxeei ikasleen Google-en kontuetako Hangouts edo Chat aplikazioa desaktibatzea gomendatzen diegu, baldin eta ez badute ikasketa-lanean erabiltzen. Halaber, ikasturte hasieran, familiei eman ohi dieten informazio guztiarekin batera, hezkuntza digitalaren garrantzia eta gutxienez oinarritzko bi heziketa irizpideak gogoraraztea gomendatzen dugu: app, zerbitzu eta smartphone bakoitza erabiltzeko gomendatutako adinak, eta pantailak erabiltzeko gomendatutako denbora.

Ikastetxeek adingabeen irudiak erabiltzeko baimen-eskaeretan, irudiaren balizko erabilera bakoitza bereizita jaso behar da, bai eta legezko tutoreek bakoitza bere aldetik onartzeko edo baztertzeko aukera ere.

DBHko familientzako gomendioak

Familiak nerabeekin mundu digitalaren inguruan eta sare sozialen inguruan maiztasun handiarekin elkarrizketak izatea gomendatzen dugu. Elkarrizketak, ez hitzaldiak, non familiek ere beraien esperientziak eta bizipenak kontatuko dituzten. Nerabeekin gai guztien inguruan hitz egitea komeni da, dena sare sozialetan bilatuko dutelako, hala nola Youtuben, Instagramen eta TikTok-en. Landu beharreko gaiak txosten honetan deskribatutako puntu guztiak izan daitezke: pribatutasuna, WhatsAppen erabilera kontzientea, Interneteko delituak, sare sozialetan ezezagunekin izan beharreko arreta-neurriak, sexting-aren arriskuak, adikzioaren sintomak eta ondorioak, harreman digital osasuntsuak, erabilera segururako irizpideak, arriskuak eta prebentzioa...

Idea ona da, halaber, Interneten ezagutu duten norbaitekin kalean geratuko badira, ez bakarrik joatea, eta egunez eta leku publikoetan gelditzea.

Batzutan nerabeek ez dute familiekin hitz egin gai batzuen inguruan. Horrelako kasuetan nerabearen konfiantzazko pertsona batengana joan gaitzke transmititu nahi dieguna adieraz diezaieten.

Garrantzitsua da teknologia nola erabiliko duten negoziatzea, batez ere erabiltzeko denbora eta adin bakoitzarekin erabili beharreko aplikazioak. Kanpoan pantailarik gabeko jarduerak sustatzea gomendatzen da, hala nola, zaletasunak, kirolak, boluntariora, talde-jarduerak... Etxean pantailarik gabeko uneak eta tokiak ezartzea ere idea ona da. Adibidez, gelan mugikorrarekin lo ez egitea, otorduak egiteko edo etxeko lanak egiteko gailuak gertu ez izatea (gailu digitalekin etxeko lanak egin behar badira, jakinarazpenak desaktibatu daitezke)...

DBHko ikastetxeentzako gomendioak

Ikastetxeetan arazo asko daudela ikusita, eta batzuetan poliziak delituak egiten dituzten nerabeen bila joan ohi direla ikusita, dugu ikastetxeek familien baimen sinatu bat izatea gomendatzen. Horrela nerabeak delituen biktimak edo egileak direla detektatzen dutenean irakasleek nerabeen smartphoneak begiratzeko baimena izango dute. Baimen hori adingabeen irudiak eskolako argazki eta bideoetan erabiltzeko baimenarekin batera sinatu daiteke.

Ikastetxeek adingabeen irudiak erabiltzeko baimen-eskaeretan, irudiaren balizko erabilera bakoitza bereizita jaso behar da, bai eta legezko tutoreek bakoitza bere aldetik onartzeko edo baztertzeko aukera ere.

Eskertza

Eskerrak eman nahi dizkiegu irakasle guztiei eta ikastetxe guztietako zuzendaritza taldeei egunero egiten duten ahaleginagatik eta erakusten duten dedikazioagatik. Baita ere, ikasleak mundu digitalean egunero dituzten arriskuak ezagutzeko erakusten duten gogoagatik eta ikasleak arrisku haietatik babesteko duten prestutasunagatik.

Hori guztia, nahiz eta egunero lan pila bat egin behar duten (pandemiak lan kopurua oraindik ere gehiago areagotu du), eta nahiz eta familiek eta gizarteak ezartzen dizkieten presio eta eskakizunak oso handiak diren, askotan gehiegizkoak.

Haien lana ez da erraza eta oharkabea pasatzen da beti.

Halaber, eskerrak ematen dizkiegu hezkuntza digitalaren beharraz kontzientziatuta dauden familia guztiei, egunero egiten duten ahaleginagatik eta egiten duten aparteko lanagatik. Guraso izatea ez da inoiz erraza izan. Sare sozialekin, online jokoekin, smartphonekin eta gainerako gailuekin zailtasuna areagotu da eta gainerako familien inkontzientziak, ezjakintasunak eta permisibitateak are zailagoa egiten dute beren lana, ulertezintasun eta bakardade sentimenduak sortuz.

Animo, ez zaudete bakarrik eta oso ondo ari zarete.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiogu Vital Fundazioari hezkuntza digitalarekin eta adingabeak interneten babestearekin duen konpromisoagatik, bai eta Araban "Har ezazu kontrola" hezkuntza digitaleko programa koordinatzeko eta gauzatzeko gudan jarritako konfiantzagatik ere.